

ZINE: ikerketa zinematografikorako koadernoak

Call for papers

ZINEren ekarpenak Argitalpen Batzordeak aukeratzen ditu aurretiaz, eta pareen kanpoko berrikuspenaren menpe daude. Proposamenak helbide honetara bidali daitezke: zine@zine-eskola.eus. Proposamen bakoitzean 250-500 hitz arteko laburpen bat eta egilearen CV osoa aurkeztu behar dira.

Hona hemen argitaratzeko aurrez hautatutako testuak bidaltzeko jarraibideak.

_ Jatorrizkoak

Artikuluak jatorrizko lanak izan behar dute, paperean edo linean argitaratu gabeak. Ezin dira aldi berean egon beste ebaluazio-prozesu batean, ezta beste hedabide batean argitaratzeko prozesuan ere.

_ Hitz kopurua

Artikuluak 6.000 hitzekoak izan behar dute gutxienez eta 10.000 hitzekoak gehienez (oharrak barne).

_ Orrazketa

ZINEk ebaluazio estandar gorenekin hartuko du konpromisoa. Arloan eskarmentu egiaztatua duten bi orraztaile independentek orraztuko dituzte artikuluak, eta ebaluazio anonimoa egingo dute. Ebaluazioetan oinarrituta, Argitalpen Batzordeak honako erabaki hauek hartuko ditu: (a) aldaketarik gabe onartzea; (b) aurreonartzea, aldaketekin; (c) artikulua baztertzea.

_ Hizkuntza

Jatorrizko lanak euskaraz, ingelesez, frantsesez edo gaztelaniaz bidal daitezke.

Koadernoak jatorrizko hizkuntzetan argitaratuko dira, euskarara eta gaztelaniara ere itzulita.

_ Lizentzia eta eskubideak

Koadernoak [CC BY-NC-ND 4.0 lizentzi](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)apean argitaratuko dira, eta [hemen](#) izango dira deskargatzeko eskuragarri.

_ Formatuari buruzko oinarritzko gida

Marjinak

Dokumentuko marjina guztiek 2,54 zentimetrokoak (hazbeteko 1ekoak) izan behar dute.

Letra tipoa eta lerroarte

Testu nagusian: Times New Roman, 12 puntukoa, lerroarte bikoitza.

Oin-oharrak eta aipu luzeak salbuespen bakarrik dira. Horietan Times New Roman letra tipoa, 10 puntukoa eta lerroarte sinplea erabili behar dira.

Tituluak eta atalak

Ataletako titulu eta azpтитulu guztiak letra lodiz idatzi behar dira

Paragrafoak

Paragrafo bakoitzaren hasiera koska baten bidez nabarmendu behar da, 1,25 zentimetrokoa (0,5 hazbetekoa).

Orrialdekatzea

Orrialde bakoitzaren zenbakia goian, eskuinaldeko ertzean, jarri behar da.

Aipuak eta erreferentziak

[Chicago estiloa \(ohar-sistema eta bibliografia\)](#) erabili behar da.

Aipu guztiak komatxo bikunen artean (“ ”) idatzi behar dira. Aipu baten barruan beste aipu bat baldin badago, komatxo bakunen artean idatzi behar da (‘ ’). Aipu luzeak (hau da, hiru lerrotik gorakoak) testu nagusitik bereizi behar dira, lerro batez. Horrez gain, ezkerretako 1,25 zentimetroko koska (0,5 hazbetekoa), 10 puntuko letra tipoa eta lerroarte sinplea erabili behar dira.

Idazkian erabilitako hizkuntza ez den beste hizkuntza bateko iturrietako aipuak erabiliz gero, egileak itzuli beharko ditu, eta dagokion oin-oharra idatzita nabarmenduko ditu. Horrez gain, jatorrizko aipua ere jaso beharko du, geroko itzulpen-lana errazte aldera.

Bibliografia- eta filmografia-erreferentzia guztiak atal bereizi batean bildu behar dira, amaieran. Atal horri “Erreferentziak” deitu behar zaio.

Filmei buruzko erreferentziak

Atzerriko filmak merkatuan estreinatu baldin badira, edo literatura espezializatuan itzulpen finkatua badute, jatorrizko izenburua eta izenburu itzulia jaso behar dira (biak letra etzanez idatzita), lehen aldiz aipatzen direnean. Horrez gain, zuzendariaren izena eta estreinaldiko data parentesi artean idatzi beharko dira.

La buena nueva/Berri ona (Helena Taberna, 2008)

Броненосец Потёмкин/Potemkin korazatua (Sergei Eisenstein, 1925)

Berriz aipatzen direnean, izenburu itzulia baino ez da idatzi behar:

Berri ona

Potemkin korazatua

Filmak ez badira oraindik estreinatu merkatuan, edo itzulpena ez badago finkaturik literatura espezializatuan, egileak itzuli beharko du, eta oin-ohar batean azaldu.

Oin-oharrak

Oin-oharrak orrialdearen behealdean idatzi behar dira: zenbakia jarrita (1, 2, 3...), 10 puntuko letra tipoa eta lerroarte sinplea erabilia.

Irudiak

Artikuluaren irudiak txertatzen baldin badira, honela azaldu behar dira: 1. irudia, 2. irudia, 3. irudia... Irudiak beste fitxategi batzuetan entregatu behar dira: gutxienez 300 puntu hazbeteko bereizmena (dpi) eta JPEG edo TIFF formatua erabilia.

Irudiak erabiltzeko behar diren baimenak egileak lortu behar ditu.

_ Beste batzuen materialak erabiltzea

Egilea da artikuluko edozein ataletako testu edo ikusizko material guztien erantzule bakarra, hirugarrenen demandan aurrean.

_ Biografia

Egileak bere biografia labur azaldu behar du atal batean (gehienez ere 300 hitz).

_ Harremanetarako datuak

Argitalpenari buruzko edozein galdera helbide honetara bidal dezakezu: zine@zine-eskola.eus.

ZINE: ikerketa zinematografikorako koadernoak argitalpenaren editoreak hauek dira:



ELÍAS
QUEREJETA
ZINE
ESKOLA



EUSKADIKO
FILMATEGIA
FILMOTECA
VASCA



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival